

---

## ESPEDIZIOAK

### DIRU-LAGUNTZA ETA/EDO BABES OFIZIALA ESKATZEKO ARAUAK

---

Espedizioa abiatu aurretik eta Gipuzkoako Federazioaren (GMF) oniritziarekin, beharrezkoa da espedizioaren PROIEKTUA bai Euskadiko Federaziora (EMF) eta bai Espainiakora (FEDME) bidaltzea, gestioa balekoa eta espedizioa ofizialtzat hartua izateko.

---

### ❖ MAILA TEKNIKO HANDIKO ESPEDIZIOENTZAKO DIRU-LAGUNTZA

---

#### A.- MENDIKO KIROLLEN ETA ESKALADAKO ESPAINIAKO FEDERAZIOAREN DIRU-LAGUNTZA (FEDME).

Maila tekniko handiko jardueratzat jotzen diren espedizio edo jarduerak soilik laguntzen ditu diruz FEDMEk, edo nazioarteko mendizaletasuna oro har hartuta, berrikuntzaren bat dakartenak ere bai (bide berriren bat irekitzea, inork zapaldu gabeko tontorren batera igotzea, zailtasun handiko igoeraren bat, lehenbiziko errepikapena etab.), edo estatuko mendizaletasunari berrikuntzaren bat dakarkiotenak (lehenbiziko igotzaileak izatea estatuan etab.)

Eskaerak tramitatzeko ondorengo urratsak eman behar dira:

#### 1.-DIRU-LAGUNTZA ESKAERA-PROIEKTUA

Espedizioa abiatu aurreko urtean, eta irailaren 30a baino lehen, Gipuzkoako Federazioaren bidez EMF eta FEDMEra ondorengo dokumentazioa bidali beharko da (bakoitzetik bost ale eta makinaz idatzita):

- ◆ Espedizioko kide bakoitzaren federazioko lizentziaren fotokopia.
- ◆ "*Espedizio egitasmoaren laburpen inprimakia*" izeneko inprimaki bikoitza "EELI-A+B" (makinaz idatzita)
- ◆ "*Consejo Superior de Deportes*" izeneko inprimaki bikoitza "CSD-A+B" (makinaz idatzita).
- ◆ Espedizioko kide guztien osasun txostena (zentro espezializatu batean egina).
- ◆ Proiektu zehatza, fitxa-laburpen inprimakiko datuak zabalago jasoko dituen
  - Espedizioko kideak eta beren datuak: bizilekua, adina, kluba, historia, etab.
  - Mendiaren deskribapena eta jarraituko den bidea: baliabide teknikoak, tontorraren altuera, bidearen luzera, zailtasunak etab.
  - Argazkiak eta/edo bidearen krokisa, mapak, etab.
  - Aurrekontu zehatza, ondorengoak jasoko dituen:
    - ✓ Gastuak: baimenak, bidaia, garraioa, materiala, elikadura, etab.
    - ✓ Sarrerak: diru-laguntza ofizialak (federazioa, foru aldundia, udala etab.), babesleak, kamiseten salmenta, etab. Sarrerarik aurreikusten ez bada, zehaztu egin beharko da: "Sarrerak: batere ez, dena geure kontura".

2.- Espedizioko kide guztiek Federatuaren Lizentzia eduki beharko dute, mundu osorako balio duen aseguruia eta espedizioak bereziki babesten dituen, baldin eta 7.000 metrotik gorako tontorra bada.

#### 3.- MEMORIA.

Espedizioa bukatu ondoren, hilabeteko epea dago ondorengo dokumentazioa aurkezteko (bakoitzetik bost ale eta makinaz idatzita):

- ◆ "*FEDMEren idzkaritzara eramateko txostena*" izeneko inprimaki bikoitza "FIET-A+B" (makinaz idatzita).
- ◆ Fitxa-informeko datuak zabalago jasoko dituen memoria. Gutxienez, ondorengo datuak:

- Espedizioeko kideak eta beren datuak: bizilekua, adina, kluba, historia, etab.
- Espedizioaren nondik norakoak: gertaerak, kanpamentuak, datak, tontorrerako ailegaera, estiloa, zailtasun teknikoa, etab.
- Espedizioaren argazkiak, egindako bidearen krokisa, erabilitako baliabideak, zailtasuna, mapak eta abar.
- Balantze ekonomiko zehatza, ondorengo atalak jasoko dituen:
  - ✓ Benetako gastuak: baimenak, bidaia, garraioa, materiala, elikadura etab.
  - ✓ Benetako sarrerak: jasotako diru-laguntza ofizialak, babesleak, kamiseten salmenta etab. Sarrerarik izan ezean, zehaztu egin beharko da: "Sarrerak: batere ez, dena geure kontura".
  - ✓ Izandako gastu guztien ordain-agiri originalak.

## **B.-GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOAREN DIRU-LAGUNTZA.**

Helburuaren kalitateari dagokionez FEDMEk erabiltzen dituen irizpide teknikoetan oinarriturik, GMFk diru-laguntza eskaerak egin diezazkioke Gipuzkoako Foru Aldundiari. Gauzatuko den jarduerak Gipuzkoako mendizaletasunari berrikuntzaren bat ekartzea aski izan daiteke diru-laguntza eskatzeko.

1. DIRU-LAGUNTZA ESKAERA-PROIEKTUA ETA MEMORIA: FEDMEren diru-laguntzetan zehaztutako dokumentazio berbera aurkeztu behar da, espediziokideen osasun txostena izan ezik; kasu honetan, hori ez da behar.
2. PROIEKTUA AURKEZTEKO EPEA: espedizioa abiatu baino bi hilabete lehenago aurkeztu beharko da. Aparteko edo ezinbesteko kasuetan, gehienez ere 50 egun lehenago. Baina beti ere azaroaren 5a baino lehen.
3. MEMORIA AURKEZTEKO EPEA: espedizioa bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

---

## **❖ LAGUNTZA OFIZIALA BESTE ESPEDIZIO BATZUEI**

---

Maila tekniko handiko helbururik ez duten espedizioei ez zaie diru-laguntzarik emango. Dena dela, komeni da dagokion tramitazioa egitea, jarduerak atzerrian Babes Ofiziala izan dezan. Horretarako zera egin behar da: jardueraren berri eman Kanpo Gaietarako Ministeritzan eta, ondorioz, espedizioa egingo deneko Espainiako enbaxadan.

Tramite hori oso garrantzitsua da laguntza diplomatikoa behar izanda ere.

Tramitazioa honela egingo da:

### 1.- PROIEKTUA

Hiru hilabete lehenago, Gipuzkoako Federazioaren bidez EMFra eta FEDMEra bidali beharko da beharrezko dokumentazioa.

- ◆ Espedizioeko kide guztien federazio lizentziaren fotokopia.
- ◆ "*Espedizio egitasmoaren laburpen inprimakia*" izeneko inprimaki bikoitza "EELI-A+B" (makina idatzita)

- ◆ *"Consejo Superior de Deportes"* izeneko inprimaki bikoitza "CSD-A+B" (makinaz idatzita).
- ◆ Proiektu xumea, fitxa-laburpen inprimakiko datuak zabalxeago jasoko dituen.
  - Espedizioeko kideak eta beren datuak: bizilekua, adina, kluba, historia, etab.
  - Argazkiak eta/edo bidearen krokisa, mapak, etab.
  - Gastuen aurrekontu sinplea: bidaia, garraioa, materiala, elikadura etab.

## 2.- MEMORIA.

- ◆ Bidaiatik itzultzean *"FEDMEren idzkaritzara eramateko txostena"* izeneko inprimaki bikoitza "FIET-A+B" bidaltzea gomendatzen da, espedizioeko espedientearen informazio osagarri gisa (lau ale eta makinaz idatzita)

---

## ❖ GARRANTZITSUA

---

Diru-laguntza bat eskatzeko, ezinbestekoa da tramite guztiak Gipuzkoako Mendizale Federazio honen bidez egitea, goian adierazitako moduan eta epeetan.

Proiektua aurkeztea gomendatzen zaie diru-laguntzarik jasotzeko aukerarik ez duten espedizioei ere. Hori egin ezean, turista soiltzat hartuko dituzte joaten diren herrian, eta arazorik sortuz gero-istripuak, gaixotasun larriak, aberriratzea, lapurretak etab.-, Espainiako enbaxadak eman dezakeen laguntza diplomatikoa izugarri moteltzen da, ez baitute espedizioaren berririk, eta horrek arazo tamalgarriak ekar ditzake.

Dokumentaziorik tramitatu ezean, Gipuzkoako Mendizale Federazioak ez du gerta litezkeen inolako ardurarik.

**ESPEDIZIOEN BATZORDEA**  
**Donostia, 2003ko maiatza**